

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

6,7 milioi euroko gastua onartu da teknologia eta ikerketako zentrozen jardueretarako

Finkatzeko, elkarlanerako, koordinaziorako eta gaitzeko proiektuak izango dira laguntzaren xede

Lunes, 16 de marzo de 2015

Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak [2015erako Nafarroan dauden finkatzeko, elkarlanerako, koordinaziorako eta gaitzeko jardueretarako laguntza-deialdia](#) onartu du; xede horretarako, 6.709.412 euroko gastua baimendu du. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 31n amaituko da.



Laguntza horiekin honako helburu hauek erdietsi nahi dira: zentrozen arteko finkatzea eta lankidetzaren alde egitea lehiakortasuna hobetuz; zentrozen bikaintasun eta espezializazioko maila handiagoa lortzea produktu, prozesu edo zerbitzuetan ezagutza garatuz, edo Estatuko nahiz Europako finantzaketa-bolumena areagotuz, eta enpresen zerbitzua hobetzea zerbitzua integrala emanez eta zentrozen nahiz enpresen arteko lankidetzaren handituz.

Nafarroako teknologia-zentroak eta ikerketa-erakundeak izan ahalko dira onuradunak. Zentroek lankidetzaren eta koordinazioko konpromisoak bere gain hartu beharko dituzte, eta baterako ekintza-plan batean gauzatuko dira.

Laguntzaren xede izango dira, alde batetik, zentrozen arteko finkatze, lankidetzaren eta koordinaziorako proiektuak, eta bestetik, gaitzeko proiektuak, espezializaziokoak nahiz traktoreak direnak.

Ekonomikoak ez diren jardueren % 100 diruz lagundu ahalko da baterako ekintza-plana egikaritzeko. Ekonomikoa ez den jardueratzat jotzen da Europako Batzordeak Ikerketa eta Garapeneko Estatuko Laguntzen Europako Erkidegoko Esparruko Batzordeak zehaztutakoa (2014/C 198/01), 2014ko ekainaren 27ko EBAOn argitaratuta. 2015ean garatutako proiektuen jarduerak diruz lagundu ahalko dira, eskaerak aurkeztu aurretik egindakoak ere barne. Diruz lagundu ahalko dira, ikerketa eta garapeneko jarduerari zuzenean lotutako gastuak.

Laguntzak emango zaizkie deialdiaren helburua betetzen dutela egiaztatutako ekintza-planei (behin ebaluatu ondoren). Diru-laguntza

lehiaketa-araubidearen bidez emango da.

Berrikuntza eta Ezagutza Transferitzeko Zerbitzuak eskaerak ebaluatuko ditu eta ebazpen-proposamena igorriko; bertan, onuradunek diru-laguntza jasotzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela jasoko da, eta hura puntuazio-ordenaren arabera emango da, harik eta aurrekontu-kreditua agortzen den arte. Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia izango da organo eskuduna emakidari buruzko ebazpena emateko eta, hala badagokio, diru-laguntza ordaintzeko. Ebazpena eskaera aurkezten denetik bi hilabeteko gehieneko epean kontatzen hasita eman eta jakinaraziko da.